

# X JAUTARKOL OLERKI SARIA

## 1. SARIA

IZENA: **LEIRE BILBAO BARRUETABEÑA**

IZENGOITIA: -

LANA: **“GEZUR HAUTSIAK”**

NONGOA: **Ondarroa**



### Hezur hautsiak

Sugandila arrakalak bihotz mintzetan ez dira haustura iragarle onak posible delako kristalezko egunetan osorik mantentzea isatsetik hartu eta ontzi batean gordetzen zaituztenean umetako sugandilak bezala.

Isatsetik hartu eta kristalezko ontzietan gordetzen ziren bezala gordetzen baduzu zure gerezi kozkorra hala ere ez esan ez dizkizutela inoiz bihotz hezurak hautsi sugelandareei isatsa bezala.

### Kristal hautsiak

Ez dago oharkabea min egiten duena baino min handiagorik ahuspez eroritako berben moduan. Edo norberak baino egun gehiago bildu duenak desio zaituenean bezala. Zaurgarri bihurtzen zara instante batez, hor nonbait bonbila bat erretzen da eta zure begiratzeko modua aldatu aurrean dagoenaren zauria bistaratu delako, bere odola edatera gonbidatzen zaituelako, denbora haustek zenbateraino mintzen duen ez dakizunean.

Ez dago oharkabea egoera menperatzea baino menpekotasun handiagorik, zauri berri batekin aurrekoa estali nahi denean aurretiaz bonbilaren kristal hautsiak zapaldu badituzu.

### **Instante hautsiak**

Gaur ere instante batez hilda ikusi zaitut  
eta ez dut negar egin  
harridura ezagun batek hartu nau  
orpotik gorako bidean  
gupida sentitu dut  
agian nigatik, agian zugatik.  
Hankak urdindu dizkidan arren hotzak  
ez dut negar egin.

Hostoz egindako itsasoan irudikatu zaitut  
beso zabalik lurra ukitu nahian  
eta oin hoztuak mugitzean baino ez zara ohartu  
ez zegoela sakonerarik  
Zauri bat ireki zaizu ordea odolik isuri ez duena  
arima zeneukan barrutik kolpeka  
baina orbain bat baino ez zaizu atera.

Orbaina,  
arima ihes egiten saiatu den lekuan sortzen delako  
ihes egin gura izan duen leku berera bueltatu eta  
berriro ere  
barruan gordeta, josita gelditzen denean.

### **... osatuz.**

Ahazten hasteko garaia da  
balizko minak astintzeko  
Arnasa sabeletik hartzeko sasoia  
sugandila isatsak luzatu, kristal hautsiak batu  
eta orbainak laztantzeko.  
Oharkabeen berriro osatzen garelako,  
behin eta berriz hausteko.

## 2. SARIA

IZENA: **LANDER ARRASATE BEDIALAUNETA**

IZENGOITIA: **TALAXERU**

LANA: **“ANAKORETA BATEN POEMAK”**

NONGOA: **Ondarroa**



### “ANAKORETA BATEN POEMAK”

#### SASI ARTETIK

*“Aizu kanpotar, begira iezaiozu estatua horri”*

*Teocrito*

Iparra galdurik hostoak  
Noraezean  
Haizearen menera  
Patua noiz iritsiko zain  
Parkea hutsik da  
Eta une batez,  
Eguzkiaren berotasuna lagun  
Bizirik dena laztantzen ari zinelako  
Sentsazioa izan zenuen  
Eta han, argitasun sakratuan  
Isiltasunean murgildurik  
Ferekatu zenuen harria.

#### BIDEA

Iritsiko zara bertara  
Urratsek agian nekea islatuko dute  
Iritsiko zara nonbait  
Hainbatek jorraturiko bideetan barrena  
Atsedean hartu, paisaia begiztatu  
Jada ez duzu maitatu ere eginen  
Ulertu egingo duzulako.

#### KARDAL ARMADA

Hare gainean irailleko haize zakarra  
Bidezidor ezezagunak zabalduz  
Hegazti mutuek olatuek ekarri aztarnak

Babesten dituzte  
Haien erara  
Eta olatuek eurek ezabatuko dituzte  
Izurdeen bakardadea  
Itsasontzien handinahia  
Gizakien amets  
Hala da Artea  
Eta hala Amodioaren hondakinak.

### **PATUA**

Urteetan zapaldu dut atzerriko hauts latza  
Eguzkiaren eta lekutako haizeek urdinu dute  
Ene izana  
Ez zen ibiltaria har zezakeen lurrik  
Ez naiz iluntasunaren beldur izan  
Nahiago izan dut minak jan nazala  
Zoriontsuen keinuek epaituko baikaituzte  
Ez gu zapaldu gaituztelako  
Patua eraldatu dutelako baizik.

### **AMETS ILUNAK**

Eskerrik asko, gau maitea  
Momentu hauek eskaintzeagatik  
Zure edertasuna sentitzeko  
Utz iezadazu eskertzen  
Ene plazera erakusten dizut  
Eta zurekin murgiltzen naiz  
Eta loak hartzen nau  
Itsasoaren zabarkeriak bortizki  
Erauzi koralezko irudietan  
Amets egin zuten marinelen antzera.

### **BARKATU, EZ ZAITUZTET EZAGUTZEN**

Ene olerkiak  
Ametsen hauts  
Ez dira paperean  
Ariman baizik  
Betiko  
Jalgi ditzadan hitzak beldur barik  
Lau haizeetara  
Gartzelaratu beharrean  
Isildu, mututu  
Lagun ditzadan mugaraino  
Izango ahal dira leialak!  
**Ezagutzen ez ditudanean.**